



URRUTIA LIBARONA, Iñigo

Administrazio Zuzenbideko irakaslea
Euskal Herriko Unibertsitatea
Agirre lehendakariaren etorbidea, 83
48015 Bilbo
dapurlii@bs.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 31-40]

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) legekontrakotzat jotzen duen Epaiari buruzko iruzkinak (Auzitegi Goreneko Epaiia, 2000.eko otsailaren 10ekoa)

(Commentaries in connection with the sentence declaring the Union of Basque Municipalities (UEMA) illegal)

Artikulu honetan, gaur-gaurkoa dugun gai bat aztertzen da: Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea legekontrakotzat jotzen duen Epaiia. UEMAren oinarri juridikoak aztertu ondoren, Mankomunitate horren ibilbideak izan dituen eragozpenez arduratzen da lan hau. Egilearen ustez, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak bere ibilbidean aurkitu duen *handicap*-ik nabarmenena, legearen babes falta izan da, eta Auzitegi Goreneko Epaiia, bai formaz, bai edukiaren aldetik, oinarri gabekotzat jo behar dela dio.

El presente artículo aborda el estudio de la Sentencia del Tribunal Supremo declarando ilegal la Mancomunidad de Ayuntamientos Vascos (UEMA), examinando sus fundamentos jurídicos y dando cuenta de los obstáculos que se le han presentado en su camino. En opinión del autor, el handicap más importante con el que se ha encontrado la Mancomunidad de Municipios Vascos es la falta de cobertura legal, manifestando que la Sentencia carece de fundamento, tanto en cuanto a forma como a contenido.

Cet article aborde l'étude de la Sentence du Tribunal Suprême qui déclare illégale Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA), en examinant ses bases juridiques et en rendant compte des obstacles qui se sont présentés sur son chemin. Selon l'auteur, le handicap le plus important rencontré par Udalerri Euskaldunen Makomunitatea est le manque de protection légale, manifestant que la Sentence semble manquer de fondement, aussi bien dans la forme que dans le contenu.

1. Kokapena. 2. Gaindi ezineko *handicap*-a: lege-babes falta. 3. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea legekontrakoa ote?

1. Kokapena

Hizkuntzari buruzko araubideaz jardun behar dut. Hizkuntz Zuzenbideaz, alegia. Udalerrri euskaldunak biltzen dituen Mankomunitatea-ren (UEMA) osaketa, araubidearekin bateragarria ez dela deklaratu duen Auzitegi Gorenaren Epaia izango dugu hizpide eta ardatz. Auzitegi Goreneko Epaia, 2000.eko otsailaren 10ekoa, hain zuzen ere.

“Udalerrri euskaldunak” izenarekin ezagutzen dugun ekimen instituzionalak badu aurpegi juridikorik. Beren hastapenetik hasi eta gaur egunera arte, Udalerrri euskaldunak mundu juridikoari erabat atxikirik bizi izan dira. Harreman hori ez da udalerrri euskaldunen barne-izaera eta barne gorpuzte juridikoan agortzen, izan ere, borondatezko isla juridiko horiez gain, udalerrri euskaldunek prozedura judizialean barrena murgildu beharra izan baitzuten, halabeharrez murgildu ere, Estatuko abokatuaren ekimenez. Harreman juridiko-prozesal horren azken emaitza, gaur hizpide dugun Epaia dugu.

Gaia bere neurrian koka dezagun, abia gaitezen udalerrri euskaldunetaz hitz egiten. Udalerrri euskaldunen ekimenak laurogeigarren hamarkadaren azkenaldera abiatu zuen bere ibilbidea. Aurrerago ideia honetan sakonduko dugun arren, esan daiteke Auzitegi Konstituzionalak Euskararen Legego 8.3 artikulua konstituziokontzarat deklaratu ondoren utzitako gabezia edo tokia betetzera etorri zela udalerrri euskaldunen ekimena. Baina, neurri horretan, berorretan, bere jaiotza eta baita bere ibilbidea ere, lege-babesik gabekoa gertatu da.

Bi dira udalerrri euskaldunen elementu definigarriak: objektiboa bata, eta subjektiboa bestea. Elementu objektiboa udalerrriaren osaketa soziolinguistikoan datza, izan ere, Udalerrri Euskaldunen kide izateko udalerrriko biztanleen artean euskaldunek portzentaje jakin batetik gora izan behar baitute. Lehenbiziko garaietan euskaldunen portzentajea %85etik gora ezarri

zen, ondoren portzentajea zertxobait beheratu bazen ere. Lehenbiziko elementu horrek islatzen duena da gizarte-bizitzan erabilpen normaleko hizkuntza administrazio arlori ekartzea dela ekimenaren oinarrietatik bat; oinarriak nagusia esan genezake.

Bigarren elementua, elementu subjektiboa da, udal gorpuztearen nahiari, borondateari, lotua. Udal hizkuntz normalkuntza-prozesua euskarari lehentasuna emanez gidatzearen aldeko adierazpen formalaren bitartez islatzen dena. Edo, modu zehatzagoan adierazita, aurreneko adierazpenaren helburuak, arau juridikoa den erregelamendu bat onartzearen bitartez gauzatzen dena, udalerrriaren hizkuntz normalkuntza abian jartzea zekarren ondorio gisa, prozesuaren azken helburua, euskara erabilpen normaleko hizkuntza bihurtzea zelarrik.

Udalerrri euskaldunen hezuramamitze prozesua luzea izan da. Bizkarrezur juridikoa hiru ardatzetan osatu da: lehena, euskara hutsezko udal funtzionamenduaren aldeko mozioaren onarpena izan zen (EHE euskal taldearen ekimenez onartua). Bigarrena, udalerrri erabat euskaldunen tipologiako euskararen erabilera arautzeko Udal Ordenantzen onarpena¹. Eta, hirugarrena, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen sorrera eta Mankomunitatearen Estatutuaren onarpena. Hiru udal erabaki horiek gorpuztu zuten Udalerrri Euskaldunen ekimena, eta gaur egungo UEMAren aurrekin juridikoak ditugu.

Ikuspegi juridikotik abiaturik, Udalerrri Euskaldunen aportaziorik garbientariko euskara, lan-hizkuntza bezala, positibatu (arautu) izana dugu². Udalerrri Euskaldunek gauzatutakoa, adierazpen juridiko huts batean agortzen denik ez dago esaterik, perspektiba berriz eta karga juridikoz osatutako ekimen instituzional baten abiapuntutzat jo daiteke ordea. Hizkuntz-normalkuntza ulertzeko bide berria zekarren, izan ere ekimen berri hark “udalerrri euskara, erabilpen normaleko hizkuntza bihurtzea” helburutzat hartu baitzuen. Bi hitzetan, “hizkuntz normalkuntza” terminoari karga juridiko berria eman zitzaion, elebitasun instituzional simetrikoa gaitzite-bidean jartzen zuena, hizkuntz politika progresiboago bati jarraituz, hain zuzen ere. Eta, bereziki, “hizkuntza propioa” kontzeptuaren lehenbiziko garapen juridikoa gauzatu zen Euskal Herrian, udalerrri euskaldunen eskutik³.

1. Ordenantza horiei buruz, ikus AGIRREAZKUENAGA, I. La cooficialidad lingüística en la Administración Foral y Local del País Vasco. In: *Cuestiones particulares del Régimen Foral y Local Vasco*, Oñati: HAEE, 1994; 35. or. eta hur.; eta autore beraren Administrazio Foral eta Lokalaren ezaugarriak euskararen normalizazio bidean, In: *RVAP*, 44 (II), 1996; 222. or. eta hur.
2. Euskararen erabilerrari buruzko araugintzaz, ikus ERKOREKA GERVASIO, J.I. Euskara Euskal Administrazioetan; erabilera arautzeari aurpegi emateko bideak, In: *Eleria*, 0 zbk.; 35. or. eta hur.; IRIONDO ARANA, X. Hizkuntzen erabilera administrazioiko barne harremanetan: eredu gonbaratuak eta euskararen praktika, In: *RVAP* 44 (II), 1996; 301. or. eta hur.
3. Autonomia Estatutuaren juridifikatutako termino honen hedapen juridikoaz jabetzeko, MIRAMBEL i ABANICÓ, A. El catalán como lengua propia de Cataluña, In: *Estudios Jurídicos sobre la Ley de Política Lingüística*, Madrid/Bartzelona: Generalitat/Marcial Pons, 1999; 57. or. eta hur.

Ene ustez, UEMAREN ibilbideak erakusten digun ezaugarriak nabarmenena hauxe da: bere hastapenetatik hasi eta gaur egunera arte, plano juridikoa eta plano teoriko-praktikoa ez direla (ezin izan direla) eskutik helduta joan UEMAREN bizitzan. Beste hitz batzutarra ekarriz, euskaraz bizitzeko udal ahaleginek eta hori gauzagarri bihurtzeari zuzenduriko antolaketek ez dutela aurkitu babes juridiko nahikorik indarrean dugun araubidean. Batetik, araubidea bera zurrunezia bihurtu zaiolako UEMARI eta, bestetik, Auzitegiek asko murriztu dutelako euskaraz bizitzeko udal ahaleginen gauzatze esparrua. Edozelan, UEMAREN gatazka juridikoari eman dakiokkeen irakurketa ez da mugatu edo identifikatu behar bere biziraupenaren aldeko gatazka bezala, baizik eta hori baino sakonagoa den hizkuntz marko-juridikoaren aukera berriak identifikatzeko –errealitate soziolinguistikoari atxikituriko hizkuntz politika berriak babesteari zuzenduak–, eta baita egungo araubidearen gabeziak antzemateko baliogarria izan den gatazka bezala.

Dudarik gabe, UEMAREN ibilbideak aspektu positiboak ekarri ditu; baita ikuspegi teoriko-juridikotik ere. Noski, UEMAREN bizitzak froga-laborategi gisa funtzionatu du Hizkuntz Zuzenbideak lo-orduak lapurtzen dizkigunontzat. Hizkuntz Zuzenbidearen eta baita hizkuntz politikaren oinarritzko kontzeptuetan sakontzeko eta, horiek arrazionalizatzeko aztergune aproposa izan da UEMA. Bere ibilbidearen aportazioetatik funtsezkoenatarikoa hauxe izan da: *(ko)ofizialtasunaren printzipioak eta hizkuntza propioaren printzipioak, plano desberdinetan jokatzen dutela*. Hori oso datu interesgarria dela dakusat. UEMA osatzen duten udalerrietako osaketa soziolinguistikoa dela bide, plano bi horiek ez dira bata bestearen aurka jarri. Eta hori horrela izanik, euskara hutsezko administrazio funtzionamenduak muga aprioristikorik ez luke izan beharko. Gogora dezagun UEMAREN aurkako errekurtsio guztiak Estatuko abokatuak jarri dituela, bat bera ere ez udal-hiritarrek, balizko diskriminazioa argudiatuz. Edozelan, bi plano horiek bata bestearen aurka jarriko balira, balizko gatazka juridiko horiek teorizazio juridiko interesgarriei emango liekete bide. Adibidez, euskaldun batek ba al du defentsa gabezia alegatzerik euskaraz jakinarazitako administrazio-erabaki bat jasotzerakoan, eta gaztelerazko itzulpena eskatzerik? Edo, udal-biztanleek hizkuntza propio eta koofiziala ezagutzen dutenean, hizkuntza horretan buruturiko jarduera

administratiboen aurrean ezjakintasuna alegatzerik izango lukete? Hauek eta beste hainbat dira UEMAREN ibilbideak mahaigaineratzen dituen gako juridikoak, balizko hizkuntz araudi berri batek gune euskaldunei begira aurrean izan beharko lituzkeenak.

2. Gaindi ezineko *handicap*-a: lege-babes falta

Idazlan honetan biraka darabilzkigun gaiek gure kontestu txiki honetan bakarrik aurkitzen dute zentzua. Gure kontestu txikian, hizkuntza propioa, euskara, alegia, UEMAKO udal-administrazioetako hizkuntza normala bihur ote daiteken zalantzagarrizkoa gertatu ohi da. Hori izan da, hain zuzen ere, UEMAREN ibilbidea baldintzatu duen faktorerik nagusia. Ez dugu gure kontestu honetatik bidaia luzeegirik egin behar hizkuntza propioaren erabilera normalari bide ematen dioten adibideak aurkitzeko, Katalunia, kasu. Lurralde elebidunetan kokaturiko Estatuko Administrazio periferikoak ere hizkuntza bakar bat erabiltzeari bide eman dio, hala arautua izan baita⁴. Gainera, hizkuntz bakar batez jarduteko ahalmena Konstituzioaren araberakotzat jo behar da, Konstituzioaren interpretatzaile nagusi eta bakarra den Auzitegi Konstituzionalaren interpretazioari jarraiki⁵.

Gauzak horrela, zer gertatu da UEMAREKIN? Euskara hutsez jarduteko aburua eta katalanera edo gaztelera hutsez jarduteko ahalmenaren artean, zein desberdintasun juridiko dago? Desberdintasunik nagusia, bi kontestu horietan dagoen lege-babes maila desberdinean datza. Kasu batean, legegilearen esku-hartzeak katalan edo gaztelera hutsezko jardunbideei babesa eskaini die, beste kasuan, aldiz, lege babes nahikorik ez da izan. Hots, gaur egun, Euskararen Legeak ez die euskarazko udal jardueri babesik eskaintzen.

Malgutasuna da Euskararen Legearen ezaugarriak aipatzerakoan azpimarra daitekeenatariko bat. Hizkuntz normalkuntza, prozesu dinamikoa izanik, hari indar juridikoa eskaintzen dion Arauak, puntu bateraino behintzat, malgutasuna barneratzea gauza logikotzat jo daiteke. Baina, malgutasuna ezin bihur daiteke behin betikoa aldatzen berez zurruna den arau juridiko batean jaso izanagatik;

4. Ikus Legea 30/1992, azaroaren 26koa, Administrazio eta Prozedurari buruzkoa, bere 36. artikulua. Artikulu horrek berriki jaso duen aldaketaz jabetzeko, ERKOREKA GERVASIO, J.I. Administrazio eta Prozeduraren 30/1992, azaroaren 26ko Legearen aldaketa eta euskararen ofizialkidetasuna. Harridurak, zalantzak, noraezeak eta, batez ere, galderak, In: *Eleria*, 4 zkia., 1999; 33. or. eta hur.

5. "La utilización por los poderes públicos de una sola de las lenguas cooficiales puede hacerse indistintamente, por propia iniciativa o incluso a elección de los interesados, cuando así se regule, siempre que no se lesionen los derechos de ningún interesado que pueda alegar válidamente el desconocimiento de la lengua utilizada, lo que sólo puede hacerse respecto de lengua distinta del castellano" (AKE 82/1986, ekainaren 26koa, 9. Z.O.)

bestelakoan, malgutasuna bera hizkuntz normalkuntzari oztopo bihurtuko zaio. Eta hori da, hain zuzen ere, Euskararen Legearen adibidea⁶.

Malgutasunaz hasi gara helburu jakin batekin. Alegia, Euskararen Legeak, udal hizkuntz funtzionamenduari dagokionez, bi norabideetan agertu zuen malgutasuna. Norabide bati begira, Euskararen Legeko Aldi Baterako bigarren Xedapenaren bertutez, Gobernuari ahalmena eman zitzaion udal botere publikoek Legean agertutako hizkuntz betebeharrak bete ez zitzairen baitmentzeko. Kontuan hartuz Euskararen Legeak barneratu duen elebitasun instituzionalaren paradigma, bi hizkuntza ofizialen aldibereko erabilera dela, malgutasunaren lehenbiziko isla horrek, *gaztelera hutsezko udal jarduerak* ahalbideratuko lituzke.

Bigarren isla da guri gehien interesatzen zaiguna, berau aurrekoaren negatiboa delarik. Euskararen Legeko 8.3 artikulua honakoa ezarri zuen: *“Udalaren egoera soziolinguistikoa kontuan izanik, herritarren eskubideak kaltetzen ez diren bitartean, udal agintariak euskara bakarrik erabili ahal izango dute”*⁷. Artikulu horren hitzez-hitzezko interpretazioari bagagozkio, argi dago ez zekarrela inolako karga koerzitibo eta inperatiborik. Artikulua ahalmen bat aipatzera mugatu zen. Gainera, aurreikusgarriak ziren interpretazio okerrak errotik desagertarazteko, artikulua gogorazti zuen euskara hutsezko udal funtzionamenduak ezin zuela inoren hizkuntz eskubiderik kaltetu; hots, udal funtzionamendu elebakarrari bide espresua eskaintzen zion artikulua berak ezarri zion funtzionamendu elebakarrari muga nagusia: hiritarraren hizkuntz aukeraketa.

Ez da hau tokirik aproposena hizkuntz bakar baten erabilpenaren mugak zein diren aztertzeke; aipa dezagun, bederen, doktrina juridikoa ez datorrela bat hiritarren hizkuntz

aukeraketa administrazioaren hizkuntz erabilpenaren muga gisa, sistema Konstituzionalaren ondorio zuzena ote den (AGIRREAZKUENAGA⁸), edo, aldiz, muga hori hizkuntz politika jakinek ezar dezaketen muga ote den (MILIAN i MASSANA⁹).

Aipatutako artikulua barneratu zituen kautelak ez ziren nahikoak Auzitegi Konstituzionalaren aburuz, eta Euskararen Legeko 8.3 artikulua konstituziokontrotzat jo zuen. Beraz, *euskara hutsezko udal jarduerak* konstituziokontrotzat jo zituen. Auzitegi Konstituzionalak erabili zuen argumentazioa, 8.3 artikulua Konstituzio espainiarreko 3.1 artikulua erekin bateragarria ez dela izan zen. Auzitegiak adierazitakoari jarraiki, Konstituzio espainiara gaztelaren ezagutza derrigortzera mugatu da, gainerako hizkuntza koofizialak ezagutzeko betebeharrak ezarri gabe. Hori horrela ulerturik, udal funtzionamendu elebakarra konstituziokontrotzat jo zen¹⁰, eta Udalerrri Euskaldunak, bide batez, babesik gabe geratu ziren.

Hainbat dira Auzitegi Konstituzionalaren erabaki horrek jaso dituen kritikak, eta horietara bidali nahi nuke irakurlea, luzatu gabe¹¹. Gaur egun Euskararen Legeko 8.3 artikulua aztertzerakoan Auzitegiak erabili zuen irizpide zurruna gainditze bidean dagoela argumenta badaiteke ere¹², Udalerrri Euskaldunen errealitate txikietan, Auzitegi Konstituzionalaren irizpidea gaindiezina bihurtu da, irizpide hori erabilia izan baita udal akordio eta ordenantzak legekontraktotzat jotzeko era sistematikoan¹³. Esan daiteke planteamentu teorikoak bide batetik abia daitezkeen arren, Udalerrri Euskaldunak ukitu dituzten planteamentu judizialak beste bide batetik abiatu direla. Bien bitartean, Udalerrri Euskaldunak, beren normalkuntza prozesuen bila aritu dira.

6. Araugintza-politika egoki batetik abiatuz, hizkuntz legeak helburuak eta betebeharrak linguistikoak ezartzera mugatu beharko liriteke, Erregelamenduen esku utzi unean uneko garapena eta Legeak aurreikusitako betebeharren gauzapena. Hizkuntz normalkuntzak, berez, dinamikoa behar du izan, aurrerapausu baten gainean, hori baino sakonagoa den beste bati bide emanez, eta hori nekez lor daiteke honako bi baldintza hauek elkarbizirik: arauaren aldakuntza zaila, eta horiek malgutasuna barneratzea. Hots, aldatzen zaila den Legeak malgutasuna erroturik izanik, aurrerapausu normaltzailentzat oztopo gaindiezina bihurtzeko arriskua du.
7. Itzulpena nire da.
8. AGIRREAZKUENAGA, I. Reflexiones Jurídicas sobre la oficialidad y el deber de conocimiento de las lenguas. In: *Estudios Jurídicos sobre la Constitución española. Homenaje al profesor Eduardo García de Enterría*. II. Lib., Madril: Civitas; 687. or. eta hurr.
9. MILIAN i MASSANA, A. Derechos lingüísticos y derechos fundamentales en España. In: *RVAP*, 30. zkia., 1991, 73. or.; eta La regulación constitucional del multilingüismo, *REDC* 10. zkia., 1984. Irizpide hau da, hain zuzen ere, Kataluniako Kontseilu Aholkuemaileak, Kataluniako Hizkuntz Politikari buruzko Legearen gaineko txostena lantzerakoan erabli zuena: *“el deber de atender en la lengua utilizada por quien debe ser atendido, no implica el deber de utilizar la misma lengua en la que se ha dirigido la petición o exigencia de atención, porque esto supondría negar la libertad y el derecho reconocidos de utilizar cualquiera de las dos lenguas”* (2. Z.O.) In: *Dictamen del Consejo Consultivo de la Generalitat de Cataluña sobre la Proposición de Ley de Política Lingüística* (Butletí Oficial del Parlament de Catalunya, 40. zbk., 1997ko abenduaren 22koa).
10. Auzitegi Konstituzionalaren hitzetan: *“el artículo 8.3 viene a ser inconstitucional por infracción de lo dispuesto en el artículo 3.1 de la Constitución española, en relación con la no existencia del deber de conocimiento del euskera en zona alguna del territorio del Estado, ..”* AKE 82/1986, ekainaren 26koa, 10. Z.O.
11. Ikus COBREROS, E. *El régimen jurídico de la oficialidad del euskera*, Oñati: IVAP, 1989; 119. or.; AGIRREAZKUENAGA, I. Reflexiones .. aur. aip. 687-689 orr.
12. ERKOREKA GERVASIO, J.I. Euskararen erabilera Administrazio Publikoaren barne harremanetan. In: *Eleria*, 5. zkia., 2000, 104. or. eta hurr.
13. Auzitegi Konstituzionalak Euskararen Legeko 8.3 artikulua deuseztatzerakoan ezarri zuen jurisprudentzia, jarraitua izan da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren honako Sententzia hauetan: 1991ko abenduaren 31koan, 3. Z.O.; 1992ko otsailaren 1ekoan, 2. Z.O.; 1993ko urtarrilaren 21ekoan; 1993ko martxoaren 9koan eta 1993ko apirilaren 14koan, besteak-beste

Zein da, bada, horren guztiaren ondorioa? Euskara hutsezko administrazio-jarduerak legebabes espresurik gabe geratu diren neurrian, Euskararen Legeak ezarri duen hizkuntz erabilera eredu orokorrak izan behar du ardatz; ardatz bakarra, alegia. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntz araubideak, eta era partzial eta matizatuan Nafar Foru Erkidegokoak ere, elebitasun instituzionalaren paradigmatzat, hizkuntz koofizialen erabilera simetrikoa hartu du. Horren adibideak dira, besteak beste, Administrazio erabakiak hizkuntza bietan jakinarazteko beharra, seinale eta iragarpenetako adierazpenak bi hizkuntzetan jasotzeko beharra, edota ikasleek egiten duten eskola hizkuntz-aukeraketaren arabera, horiek banatzea, segregatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoak eta partzialki nafarrak ere hautatu duten sistema, hizkuntz politikako aukera bat baino ez da, ez baita har zitekeen bakarra, ezta egungo oinarri juridiko nagusien barne tokia duen bakarra ere. Dударik gabe, hauxe da hauta zitezkeen aukeren artean konfliktibotasunik txikiena eskaintzen duena, baina horrek ez du esan nahi egokiena denik, normalkuntza prozesuaren abiapuntutik behintzat. Ikuspegi juridikotik abiatuz ere, erabilera simetrikoan oinarritzen den sistema ezin jo daiteke Konstituzioaren arabera goa, hizkuntzen erabilera indistintoan oinarritzen den sistema baino, ezta ere hizkuntza propioaren erabilerrari lehentasuna ematen dion sistema baino (Kataluniakoa bezala).

Elebitasun instituzional simetrikoaren sistemak, argi dago, ororen hizkuntz aukeraketa bermatzen duela, izan ere, hizkuntza bat edo besteaz baliatzeko aukerak eskaintzen baititu. Baina, baita hizkuntza aukeratzeko eskubidea aitortua duten sistemetan ere, eskubide horren ondorio zuzena ez da, ezinbestean, erabilera simetrikoaren aukera. Esan nahi dena da, teoriak ez lukeela arazo juridiko larriegirik etorri beharko Administrazioak hizkuntz ofizial batean funtzionatzeagatik, aukeraketa pertsonala bermatzen den neurrian. Hiritarrari hizkuntza aukeratzeko eskubidea aitortzen bazaio, horrek ez du ezinbestean jarduera publiko guztien elebitasuna ekarri beharrik. Kasu horretan ere, martxan jar daitekeen hizkuntz politikak hizkuntz

“ Balizko erregulazio juridiko berri batek "hizkuntza propioa"-ren kontzeptua ardatz gisa hartu beharko luke, eta kategoria horrek eskain ditzakeen aukerak esploratu



koofizialekin bat erabilera arrunteko hizkuntza bihurtzeko. Eta horrek ez du *per se* adierazten hizkuntz eskubideak kaltetzen direnik.

Euskararen Legeak hautatu duen bidea, ez da, beraz, bide bakarra. Baina bide bakarra ez izateaz gainera, ezarritakoak, beste batzuei atea errotik itxi dizkie. Hizkuntz normalkuntzari begira, udal-administrazioek hauta dezaketen hizkuntza politika progresiboagoentzat, Euskararen Legea oztopo bihurtu dela esan genezake¹⁴. Eta hori horrela da zurrunezia bihurtu delako Auzitegi Konstituzionalak 8.3 artikulua deuseztatu ondoren. Horren adibiderik garbiena, Eusko Jaurlaritzako Erakunde Harremanetako eta Toki Administrazio zuzendari nagusiaren Komunikazioa da, 1998ko maiatzaren 19koa, Bermeoko alkateari zuzendua. Ohartarazpen horretan, Bermeoko Udalak Euskararen Erabilera Sustatzeko eta Normalizatzeko onartu zuen Ordenantza¹⁵ Euskararen Legearen aurkakatuz joz, Ordenantzaren aldaketa eskatu zuen¹⁶. Esan bezala, hori adibide bat baino ez da, adibide erreal eta mingarria —ohartarazpena nondik datorren ikusirik—, Euskararen Legea hizkuntz politika aurrerakoiei lagungarri baino, oztopo bihurtzeko azaltzen diguna.

14. Bat nator J. ERKOREKArekin, esaten duenean “*euskaraz bakarrik jarduteari dagokionez, Konstituzioa bera baino estuagoa da Euskararen Legea*” (Euskararen erabilera Administrazio Publikoaren barne harremanetan. In: *Eleria*, 5. zkia., 2000, 111. or.)

15. Argitarapena: Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 1998ko apirilaren 24koa.

16. Ordenantza eta Euskararen Legearen arteko kontrastea egin ondoren, hauxe jakinarazi zion alkateari: “*debemos señalar que los artículo 16 (primer inciso) y 18 contravienen lo dispuesto en el artículo anteriormente transcrito en cuanto a la obligatoriedad de su redacción en forma bilingüe. A su vez, el artículo 7 de la Ordenanza establece la obligatoriedad de que los estudios, proyectos y demás trabajos que el Ayuntamiento encargue a terceras personas, tanto físicas como jurídicas con residencia en Euskadi, se presenten en Euskera. Igualmente se señala que la relación que el Ayuntamiento mantenga con los contratistas será en euskera, previniéndoles que no se harán traducciones. En consecuencia y una vez expuesto lo anterior, debemos manifestar que dicho artículo vulnera los preceptos anteriormente transcritos (Euskararen legekoak, alegia)*”. Eta aurrerago: “*En consecuencia, todo acto en el que intervenga el Ayuntamiento de Bermeo así como sus notificaciones y comunicaciones deberán ir necesariamente redactados en forma bilingüe*”. Aur. aip..



Esandako guztiaren ondorio gisa, argi dago egungo indefinizio juridikoa gainditzeko bideak jarri beharko liratekeela. Udalerri Euskaldunen ekinbideari babesgarri gerta dakizkiokeen arau berriak onartu ezean, gauza askorik aurreraterik ez da izango, eta "printzipiozko legaltasun/ilegaltasun deklaratu"-ren arteko oreka ezezonkorra perpetuatzeko aukerak sendotu egingo dira. Hari horri jarraiki, uste dut balizko erregulazio juridiko berri batek "hizkuntza propioa"-ren kontzeptua ardatz gisa hartu beharko lukeela, eta kategoria horrek eskain ditzakeen aukerak esploratu, Katalunian Hizkuntz Politikari buruzko Lege berria abiatu den norabide beretik abiatuz, beraz.

3. Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea legekontrakoa ote?

Madrilgo Auzitegi Gorenak, 2000.eko otsailaren 10eko Epaiaren bitartez, UEMA legekontrakotzat jo du¹⁷. Espainiako Auzitegirik gorenaren Epai hori ez da epai erraza, UEMA bera legekontrakotzat jotzen duen neurrian, ez baitago formalki ilegalizatzen duenik baieztatzerik. Saiatuko naiz esandakoari argia ematen, eta Epaiak agertzen dituen xehetasunak argitzen. Bideanabar, aurrera dezagun Epai kontraesankorra dela eta, arauak aplikatzerakoan zurrunezia.

Auzitegi Gorenaren hirugarren Salak (Administrazio-auzigaietarako Salak, alegia), kasu honetan, Estatuko abokatuaren ekimenez jarritako Kasazio errekurso bat ebatzi du; bigarren instantzia gisa arituz, beraz. Lehen Instantzia Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian gauzatu zen, kasu horretan ere Estatuko abokatuaren ekimenez jarritako errekursoa ebatziz. Auzitegi Nagusian lehenbizi, eta ondoren, Auzitegi Gorenean, Abaltzisketako Udalaren akordio baten legezkotasuna aztertua izan zen¹⁸. Ez zen, beraz, UEMAren osaketa akordatu zuen udalarteko akordioa errekurritu; hilabete batez jendaurreko informazioaldian izan zena. Hots, UEMAren sorrera formala udal fundatzaileen ordezkariak, Asanbladan bildurik, hartutako erabaki baten bitartez gauzatu zen¹⁹. Erabaki horretan UEMAren lehenbiziko Estatutuak onartu ziren, eta erabaki hori ez zen errekurritua izan. UEMA sortu ondoren, udalek, bakoitzak bere

“ Argi gera dadila errekursoaren objektua ez zela UEMAren sorrera bera, baizik eta udal batek aurrerantzean arautzat izango zituen Estatutuak argitaratzea ”

aldetik, UEMAren Estatutuak argitaratu zituzten. Abaltzisketako Udalak horri ekin zionean, Estatuko abokatuak udal horren ekimenez gauzatutako argitaralpen ofiziala errekurritu zuen. Bi hitzetan, Auzitegi Gorenaren Epaiaren ebatzitakoa, udal jakin baten udal-akordioaren legezkotasuna izan da, aurretik sortuta zegoen Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean integratzeari buruzkoa.

Azter dezagun Epaiaren sistema sistematikoan. Has gaitezen arazo formalekin:

a) Lehen arazo formala: uzia edo pretentsioa

Jakin beharrekoa da Abaltzisketako Udalak, errekursoa izapidatzen zegoen bitartean, UEMAko kide izateari utzi ziola, eta hala jakinarazi ziola Auzitegi Gorenari. Beraz, errekursoarekin aurrera jarraitzeak ez zuen zentzurik, izan ere errekurritutako erabakia udal horrek hartutako erabakia izanik, ondoren, UEMAko kide izateari utzi zionean, errekurritutako erabakia udalak berak errebokatuz zuela ulertu behar baita. Argi gera dadila errekursoaren objektua ez zela UEMAren sorrera bera, baizik eta udal batek aurrerantzean arautzat izango zituen Estatutuak argitaratzea. Hori horrela izanik,

17. Honetan ere, Auzitegi Gorenako 1999ko maiatzaren 24ko Epaiarekin gertatu zen bezala (berau Aizamazabalgo Udalaren Euskara Ordenantziari buruzkoa), prentsa madrildarrak ohartarazi zion Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen legekontrakotasunaz.
18. Kontuan har data bereko Auzitegi Gorenaren beste Epai bat badagoela, Baliarraingo Udalak hartutako erabaki berdinari buruz; Epaiak berdin-berdinak direnez, Abaltzisketakoari erreferentzia egingo zaio hemen.
19. Mankomunitatearen sorrera erregimenaz jabetzeko, ikus Legea 7/1985, apirilaren 2koa, Toki Eraentzari buruzko Oinarrien Legea (LBRL), bereziki 44.3 artikulua, eta Toki Eraentzako Indarreango Lege Xedapenen Testu Bategina (TRRL), (Errege Dekretu Legegilea 781/1986, apirilaren 18koaren bitartez onartua). Mankomunitateen sorreraren gaineko autonomia erkidegoen kontrol ezaz, ikus AKE 214/1989, abenduaren 21ekoa, non honakoa baieztatu baitzen: “*El legislador estatal, en el ejercicio de la competencia que le reconoce el art. 149.1.18 CE, ha optado aquí como en otros supuestos, por ampliar el alcance y contenido de la autonomía municipal*”.

UEMATik alde egindakoan Estatutu horiekiko erabateko desbinkulazioa gauzatu zen, eta une horretatik aurrera Estatutuek ez zuten indarririk Abaltzisketan, ezta Abaltzisketako Udal Gorporazioa lotzen ere. Errekurtsogileak Auzitegira eraman zuen pretentsioa²⁰, Estatuko abokatuarena, kasu honetan, Abaltzisketako akordioa deusez deklaratu edo deusezta zezala izan zen. Baina, logikaren arabera, Abaltzisketako Udalak UEMA utzi zuen momentuan, Estatuko abokatuaren pretentsioak edo –estraprozesalki– gauzagarriak edo, gauzaezin bihurtu ziren ezinbestean. Epaiak edozein izanik ere, ez zuen Abaltzisketako Udala eragiterik. Epaiak inolako eraginik ez zuen sortzerik alde demandatu bakarra zen Abaltzisketarentzat, izan ere Udal horrek hartutako akordioa, Udalaren ekimen propioz, desegina geratu baitzen. Errekurtsua oinarri juridikorik gabe geratu zen arren, Auzitegi Gorenak bere Epaiak eman zuen.

b) Bigarren arazo formala: epatzea edo enplazamendua (adierazpena eta ebazpena)

Epaiak UEMA legezkontrakotzat jotzen badu ere, formalki ez duela ilegalizatzen aurreratu dugu, eta hala dela esaterik badagoela uste dut. Epaiak, era sendo batez, honakoa deklaratu du:

“Kontua ez da Mankomunitatearen Estatutuak zuzenbideaz kontrakoak direla soilik, kontua da Mankomunitatearen osaketa bera ez datorrela bat ordenamendu juridikoarekin; beraz, a fortiori, haren Estatutuak ez dira baliozkoak ez Zuzenbidearen baitakoak, eta halaber haiek onartzeko udal akordioa, hau da, inpugnatutako erabakia”²¹

Argi dago Auzitegi Gorenak, UEMAko Estatutuak legezkontrakotzat jotzeaz gainera, UEMA bera legearen arabera ez dela deklaratu duela. Baina hori gauza argia izanik, Epaiaren azken atalean, Auzitegiaren Erabakia jasotzen duen atalean hain zuzen ere, Abaltzisketako Udal akordioaren legezkontrakotasuna deklaratzera mugatzen da, aipatuz:

“.. baliorik gabe uzten dugu udal akordioa, udal mankomunitate horren osaketa ez delako bat etortzen ordenamendu juridikoarekin”.

Gauzak horrela, Epaiak ez dio era zuzenean UEMari eragiten, Abaltzisketako Udalaren erabakiari baizik. Horren zergatian errepara dezagun. Epaiak, zio formalek direla bide, ezin izan du UEMaren aurka zuzen egiterik atal dispositiboan. Eta hori hala da, ez bakarrik Estatuko abokatuak errekurtsua jarri zuenean UEMaren aurka jarri ez zuelako, hots UEMA –Udal gorporazio lege²²– demandatua izan ez zelako, baizik eta UEMari errekurtsuan parte hartzeko aukerarik eman ez zitzaiolako. Administrazio Zuzenbidearen arabera, epaileek badute “ofizioz” administrazio erabakiak deusez deklaratzetik, beraz, badute erregelamendu izaera duen UEMaren Estatutuak deusez deklaratzetik, baina hori gerta dadin, Administrazio demandatuari, UEMari kasu honetan, entzun behar zitzaion, alegia, prozedura judizialean parte hartzeko eskubidea bermatu behar zitzaion, eta ez zen halakorik gertatu ez lehenbiziko instantzian, ezta Kasazioan ere.

Administrazio-auzigaietarako Lege berrian arautu berri den “legezkontrako galdaketa” (*question de ilegalidad*), kasu honetan erabat aplikagarria suertatzen ez bada ere –errekurtsua zuzena izan baita, eta ez zeharbidezkoa–, Auzitegi Gorenari ahalmena ematen dio erregelamenduak zuzenean deuseztatzeko, galdaketa planteatu gabe ere, baina hori bezain egiazkoa da 123. artikulua, ukituak izan daitezken alderdiak –UEMA kasu honetan– deitzeko beharra ezartzen duela²³. Aspektu honen garrantziaz jabetzeko, pentsa dezagun Epaiaren zioetan deuseztat jotzen diren Estatutuak ez direla erregelamendu arruntak, UEMaren beraren izateari bide ematen dion araua baizik.

Oraindik ikusteko dagoen beste klabe bat, Epaiaren exekuzioa nola gauzatzen den dugu. Auzitegi Nagusiari dagokio Auzitegi Gorenak kasazioan epaitutakoa betearaztea, eta exekuzio bidean izan daitezkeen aukera judizialak anitzak izan daitezke, oraindik guztiak zabalik daudelarik.

Zio formalek UEMaren kontrako Epai zuzena ekidin dute, baina horrek ez du esan nahi UEMaren legezkontratasuna bermaturik dagoenik, ezta indarberriturik atera denik ere, kontrakoa baizik. Nire uste apalean, Epaiak UEMaren flotazio lerroan bortiz jo du, erabat ukiturik utziz. Ondoren Epaiaren funtsaz arduratuko gara, eta baieztatuko dugu Epaiaren oinarriak juridikoki

20. Gogora dezagun aldean pretentsioak errekurtsuaren oinarria direla; ikus Legea 29/1998, uztailearen 13koa, Administrazio Auzigaietarako jurisdikzioa arautzeari buruzkoa, bere 31. art. an.

21. AGE 2000. urteko otsailaren 10ekoa, 3. Zuzenbide Oinarria (itzulpena *Euskaldunon Egunkaria*-tik hartu da, 2000ko martxoaren 14ko aletik, 19. or.).

22. A. BALLESTEROS FERNANDEZEN hitzetan, *“las Mancomunidades son asociaciones voluntarias de Municipios para la realización de las finalidades asignadas en los Estatutos. Gozan de personalidad y capacidad jurídica propia, distinta de la de los entes asociados, y tienen la condición de entes locales institucionales con las potestades públicas inherentes a esta condición”* (*Manual de Administración Local*, Granada: Comares, 1992; 101. or.).

23. *“En este Auto se acordará emplazar a las partes para que, en el plazo de quince días, puedan comparecer y formular alegaciones ante el Tribunal competente y formular alegaciones ante el Tribunal competente para fallar la cuestión. Transcurrido ese plazo, no se admitirá la personación”* dio 29/1998 Legeak, bere 123.22 artikuluan.

zuzenak ez direla. Baina, edozelan ere, Epaiak jurisprudentzia baten lehen agerpena izateko arriskua duela uste dut, ez bakarrik Auzitegi Goreneko Epaiak delako, beraz jarraigarria Auzitegi Nagusietan, eta ponente lanetan Administrazio-antolakuntza arloan aditua izateaz gainera, pisu handiko magistratu bat aritu delako (BAENA DE ALCAZAR), baizik eta ikusi egin behar delako, gaur egungo demarkazio-planta juridikional berriarekin, Auzitegi Gorenera hel ote daitezkeen UEMAREN aurkako zuzeneko zein zeharbidezko balizko errekurso berriak. Hots, jurisprudentzia ildoak aldatzeko aukerak, Auzitegi Gorenaren edo Auzitegi Konstituzionalaren²⁴ Epai berri baten eskutik etor daitezke soilik, eta hori horrela izanik, Estatuko abokatuak etorkizunean planteatu ditzakeen errekursoen formulazioak Auzitegi horietara heltzeko aukerak zabal edo itxi ditzakete.

c) Hirugarren arazo formalak: errekurritutako artikuluekiko kongruentziarik eza

Estatuko abokatuak bere kasazio errekurtsua aurkeztu zuenean, Abaltzisketako Udalak onartutako Estatutuetako puntu zehatzak hartu zituen errekurtsoren objektutzat. Hots, Estatuko abokatuak UEMAko Estatutuen zenbait artikuluek errekurritu zituen; ez, ordea, Mankomunitatearen sorrera bera. Estatuko abokatuak ez zuen bere uzian eskatzen UEMA bera lezkontraktatzat jo zedila, ezta gutxiagorik ere. Perspektiba juridiko orokor batetik abiatuz esan daiteke Epaiaren kongruentzia falta agerikoa dela puntu horretan ere. Administrazio-auzigaietarako Legearen arabera, Epaiak alderdiek eskatutakoaren arabera izan behar du. Hots, Auzitegiek alderdiek eskatutakoaren eremu barruan bete behar dute beren epai-lana. Eta, inork errekurritu ez dituen artikuluen gainean jardun behar badute, alderdiei horren berri eman behar du zuei, alegazioak egin ditzaten (33.3 eta 2 art.). Nahiz eta hori horrela izan, Auzitegiak inork errekurritu gabeko artikuluen gainean jardun zuen; eta inork eskatu gabe, UEMAREN lezkontraktotasuna deklaratu zuen.

Epaiaren mamiari dagokionez, hiru gai:

a) Estatuko abokatuaren legitimazio aktiboak

Udalari Euskaldunen funtsezko erabakiak judizializatu direnean UEMAREN zerbitzu juridikoek erabili duten argumentazioetatik bat, Estatuko abokatuak (Estatuko Administrazioak, beraz) hizkuntzari loturiko akordioak errekurritzeko legitimaziorik ez duela izan da. Sistema juridiko espainiarrean autonomiadun erakundeen gaineko kontrola, kontrolbide delimitatua da²⁵. Hari horri jarraiki, 7/1985 Legeak (LBRL), bere 6.2 artikuluan, "Auzitegiek udal akordio eta erabakien gaineko lege-kontrola bideratzen" dutela ezartzen du. Besterik da, udal akordioak inpugnatzeko Erakunde legitimatuaren gakoak. Noski, Lege bereko 63.1.a artikuluen arabera, Estatuko Administrazioa eta autonomia erkidegoko Administrazioa, biak, legitimaturik daude udal-akordioak inpugnatzeko; baina legitimazio hori baztertzailera (eskluientea) da²⁶. Udal akordioak inpugnatzeko legitimazioa, esan bezala, ez da indistintoa, partzelatua baizik. Alegia, udal erabaki batek Estatuaren eremupeko arloren bat ukitzen duenean, hari egokituko zaio kontrol bideei ekitea, eta ez erkidegoko Administrazioari, eta alderantziz. Bereiztu behar da nork duen arloari buruzko kompetentzia, edo nahi bada, bereiztu behar da nork duen arloa arautzeko gaitasuna, eta horren arabera ondorioztatuko da zein den ente legitimatua balizko errekurtsuak abiarazteko²⁷.

Argumentazio horrek lehenbiziko garaiko epaietan ohiartzunik izan ez bazuen ere, ondoren, jurisprudentzia aldaketa izan zen²⁸. Jurisprudentzia aldaketaren islarik nagusienak, Euskararen Ordenantzen aurkako eta UEMARI buruzko udal-akordioaren aurkako errekurtsuetan izan ziren. Errekurtsu horietan, epaileek ez zitoten Estatuko abokatuak errekurritutako artikuluek guztien azterketa judizialari ekin, honek euskararen sustapenari dagokionez kompetentziarik ez duela argudiatuz²⁹. Estatuko abokatuak Auzitegi Gorenean Kasazio

24. Auzitegi Konstituzionalean Anparo Errekurtsu bat jar daiteke baldin eta oinarritzko eskubideren bat (tutela judizial eraginkorra, kasu) kaltetua izan bada. Gertatzen dena da ez dagoela argi UEMA bezalako Udal Gorpuzioek oinarritzko eskubiderik ote duten; oinarritzko eskubideak gizasemei aitortu zaizkigun eskubideak dira, baina ez dago argi Pertsona Juridikoak, eta are zalantzarago, Administrazio Lokalak, halakoren jabe ote diren. Doktrina juridikoan ez dago iritzirik batasunik.

25. Auzitegi Konstituzionalaren hitzetan: "el principio de autonomía es compatible con la existencia de un control de legalidad sobre el ejercicio de las competencias, si bien entendemos que no se ajusta a tal principio la previsión de controles genéricos e indeterminados que sitúen a las Entidades Locales en una posición de subordinación o dependencia cuasi jerárquica de la Administración del Estado u otras Entidades Territoriales" (AKE 214/1989, aur. aip. 23. Z.O.).

26. AKE 214/1989, aur. aip. 23. ZO; ikus ere BALLESTEROS, A., *Manual* .. aur. aip. 65. or..

27. Ezin daiteke bestelakorik izan honako hitz argi hauei eman beharreko interpretazioa: "Cuando la Administración del Estado o de las Comunidades Autónomas considere, en el ámbito de las respectivas competencias, que un acto o acuerdo de alguna Entidad Local infringe el ordenamiento jurídico.." (Legea 7/1985, aur. aip. 65.1 art.; kurtsiba nirea da); eta "La Administración del Estado o, en su caso, la de la Comunidad Autónoma podrá impugnar el acto o acuerdo ante la jurisdicción contencioso-administrativa.." (Legea 7/1985, aur. aip. 65.3 art.; kurtsiba nirea da).

28. AGIRREAZKUENAGA, I. Administrazio Foral eta Lokalaren ezaugarriak euskararen normalizazio bidean. In: *RVAP*, 44 zkia. (II) 1996, 223. or.

29. "Lo que ahora interesa destacar es que la acción jurisdiccional que alternativamente se reconoce al Estado y a la Comunidad Autónoma nace en función de las "respectivas competencias" de cada sujeto público de ámbito superior y por tanto no se otorga a cada uno sin distinción de sectores y materias" (EAEko Auzitegi Nagusiko Epaiak 1992ko otsailaren 1ekoak, 1. Z.O.).

“ Mankomunitatearen elementurik garrantzitsuena ez da zein motako zerbitzuak eskaintzen dituen, edo zein den zerbitzu horien izaera; elementurik garrantzitsuena, Mankomunitateak kudeatu beharreko arloa udal eskuduntzapekoa izatea da ”

errekurtsoa jarri bazuen, arrazoi horregatik izan zen, hain zuzen ere. Izan ere, Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak haren kompetentzia falta agertu baitzuen³⁰.

Auzitegi Gorenaren Epaiari so, esan behar da kontraesanik ageriena puntu horretan agertzen duela. Izan ere, bere 3. zuzenbide oinarrian, era sendo batez, honakoa baieztatu baitzuen:

“Euskara bultzatzea eta lantzea ez da udal eskumena, autonomia erkidegoari baitagokio”.

Baieztapenaren sendotasun berdinaz galde genezake, Auzitegiaren aburuz hori hain gauza argia izanik, zergatik onartu duen Estatuko abokatuaren legitimazioa. Hots, Estatuko abokatuak errekurri ditzake Estatuari dagozkion eskuduntzak kaltetzen dituzten udal-akordioak; eta kasu honetan Auzitegiak dio Autonomia Erkidegoari dagokiola euskararen sustapenaren gaineko eskuduntza, ez Estatuko Administrazioari. Beraz, udal-akordioa inork

errekurritzekotan, Euskal Autonomia Erkidegoak egin beharko luke, inola ere ez Estatuko Administrazioak. Eta hori horrela da arloa arautzeko kompetentzia duenak arlo hori zapal dezaketen udal-akordioak errekurritzeko kompetentzia duelako; beraz, arloa arautu ezin duenak, ez du haren gainekoa errekurritzerik.

b) Hizkuntza eta zerbitzu publikoa

Legea arauz, Mankomunitateak bi gauzetarako sor daitezke: obrak (herrilanak) egiteko edo zerbitzuak eskaintzeko. Mankomunitatea Administrazio Lokala da, udalerrria den bezala; beraz, Administrazio Publikoak dituen ahalmenen jabe da, betiere, bere sortze helburuei egokituak. Mankomunitateak sor daitezke udalerriei dagozkien zereginak era komunean eskaintzeko. Esan bezala, bi helburu horietarako sor daitezke ahalmen potentzialitate handiko Erakunde horiek.

Hizpide dugun Epaiari, Auzitegi Gorenak honakoa baieztatu zuen:

“euskara lantzea eta sustatzea ez da inolako herrilanik egitea. Udalerrri horietako herritarrei emandako zerbitzua den ala ez, modu abstraktuan eta orokorrean eztabaida liteke, baina zerbitzu publikoaren kontzeptua oso-oso zabal harturik bakarrik onar daiteke hori zerbitzu publikoa dela” (2. Z.O.).

Luze joko genuke zerbitzu publikoaren kontzeptuak Administrazio Zuzenbidean duen hedapenez hitz egiten, kontzeptu hori izan delarik historikoki Administrazio Zuzenbideari zentzua eman diona (DUGUIT). Ez gara horretan murgilduko. Eta ez gara horretan murgilduko, azken finean, udalen antolaketa gaitasunaren barne geratzen delako udalei dagozkien zereginak kudeatzeko moduak hautatzea. Mankomunitatearen elementurik garrantzitsuena ez da zein motako zerbitzuak eskaintzen dituen, edo zein den zerbitzu horien izaera; elementurik garrantzitsuena, Mankomunitateak kudeatu beharreko arloa udal eskuduntzapekoa izatea da³¹. UEMAren kasuan, Estatutuek argi ezartzen dute hizkuntz planifikazioa, laguntza tekniko eta hizkuntz zerbitzuak eskaintzea direla Mankomunitatearen egitekoak³². Noski, euskararen sustapena eta udal mailako hizkuntz-plangintzak diseinatu eta abian jartzea nekez burutu daitezke 3-4 funtzionarioz osatzen diren udal txikietan. Eta hori da UEMA osatzen duten

30. Auzitegi Nagusiko Epaiari, 1993ko irailaren 14koa, 1. Z.O.

31. BALLESTEROS, A. *Manual* .. aur. aip. 103. art..

32. Estatutuetako 4. artikulua araberan *“1. UEMAren helburu orokorra, bertako partaide diren Udal Administrazioen barne iharduera zein Udalerrietako gizarte bizitzaren esparru guztietan euskararen erabilera ahalbidetzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzuak eskaintzea da”*, eta *“4. Bertako partaide diren Udalen ahaleginek emaitza maila goren izan dezaten, UEMA-k hauen ekintzak koordinatu eta beharrezko laguntza tekniko eskainiko die”.*



udalerrietan gertatzen den egoera. Horretarako, hain zuzen ere, sortu zen UEMA, udalek beren kabuz, eskaini ezineko hizkuntz zerbitzuak eskaintzeko.

Gaur egungo hizkuntz politika, Hizkuntz Plangintza nagusiarekin batera, tokian-tokiko mikroplanak bultzatzearen aldekoa da. Eskola, Unibertsitate-sail, osasun zentru, edota udalerrietan euskara normalkuntza plangintzak diseinatu eta abian jartzea euskararen berreskurapenaren metodologia dugu gaur egun. Araubideak ere, erakunde publiko bakoitzari ezarri die *“euskararen erabilera normalizatzeko planak”* lantzeko beharra (Dekretua 86/1997, apirilaren 15ekoa, 19.1 art.). Normalkuntza plangintzak landu eta ondoren gauzatzea, zerbitzuak eskaintzearen bitartez etor daiteke soilik; eta eginbide horretarako Mankomunitate bat sortzea ez da, inolaz ere, gehiegikeria. Udal handi eta ertainek hizkuntz zerbitzu propioak (dinamizatzailek, Patronatuak, e.a.) izatea gehiegikeria ez den bezala.

c) Hizkuntza arautzeko kompetentzia eta hizkuntza sustatzeko kompetentzia

UEMAren Estatutuak azken urte hauetan jasotako berrikuntzarik nabarmenenetarikoek epigrafe honetan jaso diren kontzeptuekin badute zerikusirik. Euskararen ofizialtasuna arautzea Autonomia Erkidegoari (erakunde erkideei) dagokie. Hainbat dira hori gogorazten duten arauak, berrienetarikoa Legea 30/1992, azaroaren 26koa, bere 36.2 artikuluan. Eta horren isla besterik ez da euskararen estatusaz arduratzen diren Lege eta Dekretuen aplikagarritasun salbuestezina, guztiak erakunde erkideek onartuak. Auzitegi Konstituzionalak ere, hizkuntzari buruzko eskuduntza autonomia erkidegoei dagokiela baieztatu du behin baino gehiagotan (AKE 82/1986).

Administrazio Lokalari autonomia aitortu zaio. Baina autonomia horrek “legearen barruan” du bere jokatzeko esparrua³³. Esan nahi dena da udal batek ez duela gazteleraren ofizialtasun bakarra deklaratzetik; ezta ere euskararen ofizialtasun bakarra ezartzerik egungo parametro juridiko orokorren barne. Edozelan, hori bezain egiazkoa da udalek badutela, hizkuntzari buruzkoan, esku-hartze ahalmen erabakiorrik.

Hizkuntza ofizialen estatus juridikoa arautzea autonomia erkidegoei dagokiela esan dugu. Katalunian, adibidez, katalaneraren erabilera orokortua ezarri da arau nagusi gisa. Euskal Autonomia Erkidegoan, aldiz, elebiasuna da arau. Edozelan ere, Legeak toki uzten duen neurrian Udal administrazioek badute beren Administrazioetako barne erabilpeneko hizkuntza

arautzerik. Eta ahalmen hori zabaldu egin da Dekretua 86/1997, apirilaren 15ekoaren ondoren, izan ere “euskarazko administrazio-atalak” –bere zereginak euskaraz betetzen dituzten administrazio-atalak– ezartzea, Administrazio bakoitzari baitagokio.

Epigrafearen hasieran esan denez, UEMAK, bere ibilbide laburrean, Estatutuak edukia aldatu du. Lehenbiziko Estatutuaren agertzen ziren hainbat baieztapen leundu egin ziren ondoren. Lehenbiziko Estatutu haiek ez ziren legekontrakoak ezartzen zutenagatik, baina ezartzen ez zutenarekin zalantzak sortzen ziren. Hots, Mankomunitateko hizkuntza ofiziala euskara dela ezartzea, edota udalerriko biztanleek eskubidea dutela euskaraz bakarrik jasotzeko Udalaren argitalpenak eta iragarkiak, ez dira, berez, legekontrakoak esaten dutenagatik; izan ere euskara bada ofiziala, eta herritarrek eskubide hori badute. Gauza da, esaten ez dutenak interpretazio arazoak ekar ditzakeela. Finean, egungo marko juridikoaren arabera udalek ez dute hizkuntzen ofizialtasuna arautzerik; ez dute Lege orokorretan ezarri denaren aurka egiterik.

Auzitegi Gorenak Albaltzisketako kasua epaitu duenean, UEMAK onartu zituen lehenbiziko Estatutuak izan ditu aztergai. Estatutu horiek eta gaur egun UEMAK dituenak ez dira berdinak. Eta ez dira berdinak, gaur egungo euskararen estatusa ukitzen ez dutelako, eta horri begira, zalantza juridikorik ez dute sortzen. Egungo Estatutuaren UEMAren helburuak euskararen normalkuntzaren bidetik abiatzen dira, eta argi azaltzen da eman beharreko zerbitzuak helburu horiei egokituak direla. Juridikoki arazorik ez dute sortzen, bai ordea garai batekoek. Gaur egungo UEMAren Estatutuak edozein izanda ere, Auzitegi Konstituzionalak UEMA legekontrakotzat jo du, bere Estatutu zaharretan oinarrituz.

Bukatzeko, ondorio bat. Ikusi den bezala, Udallerri Euskaldunen ibilbidea zailtasunez beteriko ibilbidea izan da. Ez da izan, ordea, bide antzua, egungo hizkuntz legediari eman dakiokeen irakurketa progresibo baten abiapuntua baizik, eta bereziki, etorkizunean planteatu daitezkeen bideen erakusgarria. Udallerri Euskaldunek Euskararen Legeko 8.3 artikulua espiritua gidari izan badute ere, Lege babes falta izan dute etsai. Hori horrela, aurreari begira, forma juridiko bat edo bestearekin, bere ibilbidea eta etorkizuna bermatu beharreko gauzak dira; maiztasun nabarmen eta adierazgarri jaso dituen erasoei aurre egiteko bide bakarra, Lege aldaketen bidetik etorriko da soilik. Horra hor Euskarari buruzko balizko marko juridiko berri batek heldu beharko dion erronketatik bat. Bada garaia euskararen erabilera normalari lasaitasun juridiko eta naturaltasuna berma dakion.

33. GALLEGO ANABITARTE, A. *Derechos fundamentales y garantías institucionales: análisis doctrinal y jurisprudencial (derecho a la educación, autonomía local, opinión pública)*, Madrid: Civitas, 1994; 146. or.